# 2019/ 0821 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA.-** Hernanin, 2019/05/06.

2019ko otsailaren 26an burututako Udal Osoko Bilkuran, udal jabetzako etxebizitzak gazteentzako zuzkidurako bizitokiak alokairuan esleitzeko zozketaren oinarriak onartu zituen.

Egin beharreko argitalpenak egin ondoren, eta esleipen prozesu honetan eskabideak aurkezteko ezarritako epea 2019ko apirilaren 02an amaitu ondoren, hogeita hamar eskaera aurkeztu ziren.

Oinarrien 4. artikuluan dioena ikusita,

**ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 2019ko urtarrilaren 31a aurretik (hau barne) dauden datuen arabera, ondoko eskatzaile hauek, betebeharreko betebeharrak betetzen dituztela ziurtatu ondoren, lau udal etxebizitzen alokairurako, **behin behinekoz onartzea**:

| Sarrera Erregistroa | NAN |
|---|---|
| 1337 | 72535793A |
| 1351 | 72477551C |
| 1422 | 72518324Z |
| 1467 | 72543813L |
| 1478 | 72489864M |
| 1487 | 72514156D |
| 1505 | 72540020K |
| 1524 | 72506146A |
| 1536 | 72464883W |
| 1656 | 72524833Z |
| 1661 | 72544853R |
| 1662 | 72543733P |
| 1683 | 72526716B |
| 1718 | 72524637W |
| 1735 | 72504868J |
| 1780 | 72506363J |
| 1890 | 72501598D |
| 1935 | 72498142A |
| 1944 | 72503506P |
| 1968 | 72534765X |
| 1979 | 72513231G |
| 2015 | 72515959H |
| 2018 | 72499893Y |
| 2143 | 72538631N |

| | |
|---|---|
| 2170 | 72506179J |

**Bigarrena.-** Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan 2019ko urtarrilaren 31a aurretik (hau barne) dauden datuen arabera, goian aipatutako oinarrietan 2. artikuluan zehazten diren ondorengo baldintzak ez betetzeagatik:

**2.1. Adinari dagokionez:**

Bizitza unitateko kide guztiek 35 urtetik behera izatea.

**2.2. Hernanirekiko loturari dagokionez:**

Hernanin gutxienez bi urtez erroldatuta egotea zozketarako izen emateko epea irekitzen danetik atzera.

**2.5. Erregistro ofizialean izena emanda egotea:**

Eskatzaileak, udalean eskaera aurkeztu aurretik, Etxebideko etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emanda egon beharko dira alokairuko etxebizitza eskatzaile gisa edo izen emate eskaera aurkeztuta izan beharko dute 2019ko urtarrilaren 31ko data baino lehen (data hori barne).

Ondoko eskatzaileak **ez onartua** izatea:

| Sarrera Erregistroa | NAN | Betetzen ez Diren baldintzak |
|---|---|---|
| 1365 | 72474717S | 2.2. |
| 1717 | 72526619Y | 2.2. |
| 1807 | 72483425Y | 2.1. eta 2.2. |
| 1919 | 72544748B | 2.5 |
| 2000 | 72492288Z | 2.5 |

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau udalaren web orrian eta iragarki taulan jarriko da ikusgai, eta ohiko egunkarietan aipamen bat argitaratuko da, eta era berean, interes dunei jakinarazpena bidaliko zaie. Web orrian argitaratzen denetik, 10 egunetako epea edukiko dute interesatuek alegazioak jartzeko, bazterketa justifikatu gabe dagoela jotzen bada.

Luis Intxauspe Arozamena alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berariazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabete**ko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berariazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabete**ko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulu eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iritzitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernani, 2019/05/06.

Idazkariordea,